

EUZKADI'KO JAURLARITZA

GOVERNEMENT AUTONOME D'EUZKADI



MINISTÈRE DE LA JUSTICE

Paris, Urtarrilla, 7.

Georges Lacombe Yaunari,

Agur:Lengo egunean izan nintzan zeure etxearen zeuri esateko
orain idatzi bear dautzudana, ezpaitzindudan aurkitu.

Bonifazio Echegarai yaun adiskide onak idatzi daust Donibane Garazitik RIEVen iyeki bat galdetuaz, 1924 urteko lenengo iruillabeteari dagokiona. Berak nai dau iyeki orretan dagon lan bat "De toponimia histórica. Evolución de la raíz "zubi" Odon de Aprix yaunarena idaz-makiñaz artu ta bidaldu dagiodan eta esaten daust zuk euki bear dozula Riev ori ta zeuri eskatzeko bere aldetik.

Nik bete dot Echegarai yaunaren agindua. Orain zuk esango dozu RIEV ori daukazunentz eta noiz ta nun itzi dagikezun.

Agindu zuere zerbitzariari

Vicente de Jiménezaga